



## 2025 2DEO SERIEAK PROIEKTUA DEIALDIAREN EBAZPENA

2024ko azaroaren 19an, 2025 2DEO SERIEAK telesai proiektuen laguntzen deialdia argitaratu zen Tabakaleraren webgunean, Tabakalerako Zine eta Ikus-entzunezko laborategiaren bidez.

Batzordeak garaiz eta behar bezala aurkeztutako proiektuen balorazioa egin du, proiektuak hautatzeko oinarrietan ezarritako irizpideekin bat etorriz, eta CICC/Tabakalerako zuzendari nagusiak, batzordeak proposatuta, honako hau

### EBATZI DU:

**Lehenengoa.**- I. eranskineko taulan zerrendatutako pertsonak 2025 2deo serieak deialdian parte hartzeko aurkeztutako proiektuak hautatzea, deialdiaren oinarrietan jasotako baldintzetan.

**Bigarrena.**- 2DEO SERIEAK mentoretza programak honako hau eskaintzen du:

- Industriako profesional ezagunen aholkularitza, ad-hoc proiektu bakoitzerako.
- Formakuntza: Lantegi desberdinak otsailtik aurrera: Gidoi idazketa, narratiba berriak, ikus-entzunezko produkzio-ereduak eta edukiplataformetan prestakuntza, besteak beste.
- Garapenerako laguntza: Bi zatitan banatuko diren 4.000 euro proiektuko, lehen zatia otsailan, proiektuak aukeratu ondoren, eta bigarrena programa amaitzean, Tabakalerarekin itxiera memoria partekatzean.
- Proiektu aurkezpenak eta ekoiztetxe bilaketa. Programan zehar, proiektua garatzeko ekoiztetxeen bilaketa landuko da foro eta saio desberdinetan.

**Hirugarrena.**- Ebazpen hau Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa, S.A.ren webgunean argitaratzea eta aukeratuei jakinaraztea.

Edizio honetan, epaimahaia Tabakalera eta EITB erankudeetako ordezkariak osatu dute proposamenen ebaluazioan inpartzialtasunaren, gardentasunaren eta berdintasunaren printzipioak bermatuz.

Donostian, 2025eko otsailaren 14an.

**Edurne Ormazabal Azpiroz**  
Zuzendari nagusia



## I. Eranskina

IZENAK	ABIZENAK	PROIEKTUA
Nitya	Lopez Saitua	SUKAR
Iñigo	Alkorta Lizarribar	LARRUA
Leire	Albinarrate Fernandez	AMAREKIN GOXO GOXO